*Aurrera, batera!*

# Azkoitia

*Mira al futuro*

eaj pnv



## **Herria eraikitzea. Hori da gure egitekoa eta ardura osoz egingo dugu.**

**Azkoitiko herriaren borondatea EAJ-k gobernatzea baldin bada, ahaleginak eta bi egingo ditugu gauzak ondo egiteko. Badirudi ez direla garai onenak politikarako. Alabaina, herritarren beharrei eta arazoei erantzuten eta denen ongizatea bermatzen jarraitzeko, politika eta politikariak beharrezkoak gara.**

**Ezinezkoa zaigu denen nahiak betetzea. Politikaren lehen betekizuna lehentasunak ezartzean datza, eta guztien onerako den hartan jartzea begiak eta indarrak, indibidualismoak alde batera utzita. Muga baliabideek jartzen dute. Gure helburua ahalik eta herritar gehienengana iristea izango da, udal baliabideak ahal dugun ondoen kudeatuz, eta batik bat, pertsona zaurgarriek jaso behar dute gure babesa.**

**Taldea, programa eta ilusioa ditugu. Orain, erabakia zurea da.**



## *Hacer pueblo. Esa es nuestra misión. Y lo haremos con absoluta responsabilidad.*

*Si la voluntad del pueblo de Azkoitia es que EAJ/PNV gobierne, nos dejaremos la piel en el empeño. Parece que no son buenos tiempos para la política. Y sin embargo, para continuar dando respuesta a los problemas y a las necesidades de las personas y garantizar su bienestar, la política es necesaria.*

*Es imposible cumplir el deseo de todas y de todos. La primera obligación de la política es establecer prioridades, y poner el foco, nuestros ojos y nuestras fuerzas, en el bien común, sin dejarnos llevar por los individualismos. El límite lo ponen los recursos. Nuestro objetivo es llegar al mayor número de vecinas y vecinos, gestionando lo mejor posible los recursos municipales, y protegiendo a los colectivos más vulnerables.*

*Tenemos equipo, programa e ilusión. Ahora, la decisión es tuya.*



### ANA AZKOITIA URTEAGA

**Azkoitiko alkategaia**
Candidata a la alcaldía de Azkoitia

***Enpresa Zientzietan lizentziaduna. Irakaslea eta banketxe bateko sukurtsaleko zuzendari izan naiz. Orain, zure alkatea izan nahi dut.***

*Licenciada en Ciencias Empresariales. He sido profesora y directora de una sucursal bancaria. Ahora, quiero ser tu alcaldesa.*

AZKOITIA





**ANA AZKOITIA URTEAGA**

***52 urte. Enpresa Zientzietan lizentziatua.***



**SONIA VAZQUEZ TEJERINA**

***46 urte. Lan Harremanetan diplomatua.***



**IMANOL ARRIZABALAGA LARRAÑAGA**

***48 urte. Makinista eta kamiolaria.***



**MARIJOSE ARREGI ETXEBERRIA**

***66 urte. Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako zuzendaria.***



**IGOR ISUSQUIZA GARCIA**

***35 urte. Azkoitiko Mapfre aseguruetako delegatua.***



**MERTXE ZUBILLAGA ALBIZU**

***58 urte. Merkataria.***



**JUAN BAUTISTA MENDIZABAL JUARISTI**

***61 urte. Geografian eta Historian lizentziatua.***



**KRISTINA BERISTAIN SUDUPE**

***51 urte. Gizarte Langintzan diplomatua. Administrari teknikaria.***



**UNAI ANDUEZA IRAETA**

***49 urte. Ingeniari Industriala. Foru Aldundiko Proiektu Estrategiko Zuzendaria.***



**MIKEL ZUBIZARRETA ORBEGOZO**

***48 urte. Gipuzkoako Urakeko antolakuntza burua.***



**AMAIA LARRAÑAGA ARREGI**

***31 urte. Ingeniaria. Estrategia eta negozio hobekuntza proiektu burua.***



**MIGUEL ANGEL BASTIDA ARANBARRI**

***68 urte. Merkataria. Jubilatua.***



**ANGEL MARTIN RODRIGUEZ**

***49 urte. Kamioilaria.***



**JOSE RAMON ARANBARRI BADIOLA**

***59 urte. Medikua. Eusko Jaurlaritzako inspekzio burua.***



**JAIONE BALENCIAGA LARRAÑAGA**

***52 urte. Administraria. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza sailean administraria.***



**MAITANE UNANUE AZKUE**

***40 urte. Enpresen administrazioan eta zuzendaritzan lizentziatua.***



**JOSE MARI FLORES LIZASO**

***73 urte. Komertziala. Jubilatua.***



**PELLO LARRAÑAGA BASTIDA**

***58 urte. Elkarguneko koordinatzailea.***



**AMAIA ZUBIZARRETA AGIRRE**

***58 urte. Magisteritzan lizentziatua. Irakaslea.***



**JAVIER ZUBIZARRETA ZUBIZARRETA**

***67 urte. Enpresaria. Alkatea.***



# HERRIA

## LANERAKO, BIZITZEKO ETA GOZATZEKO

**Bizi proiektu bat garatzeko ingurune egokia eskaintzen duen herria eraikitzen jarraituko dugu. Lanerako, formaziorako, aisialdirako eta bizitzeko aukerak ematen dituen herria; ingurumenari, inklusioari, berdintasunari, eta irisgarritasunari erreparatzen dion herria; euskara eta euskal nortasuna zainduko dituen herria.**

# MUNICIPIO

## TRABAJAR, VIVIR, GOZAR

Seguiremos trabajando por un pueblo que ofrezca un entorno apropiado para que las personas puedan desarrollar su proyecto de vida. Un pueblo que aúna oportunidades de trabajo, formación, ocio y vivienda; un pueblo que pone el foco en el medioambiente, la inclusión, la igualdad y la accesibilidad, y que preserve el euskera y nuestra identidad.

# UDALA

## IREKIA, PRESTUA ETA GERTUKOA

**Udala, zerbitzari publikoek osatzen duten heinean, herritarrei laguntzeko dago, informazio zuzena emanez, indarrean dagoen araudia ezagutaraziz eta aplikatuz, eta herritarren aferak eta arazoak egoki bideratuz. Horregatik, Udal barruko funtzionamendua indartzen jarraituko dugu, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko.**

# AYUNTAMIENTO

## DE TRATO ABIERTO, HONRADO Y CERCANO

La administración local y el personal del servicio público están para ayudar a las vecinas y vecinos, proporcionando información, dando a conocer y aplicando la normativa vigente, y canalizando adecuadamente los asuntos y problemas de la ciudadanía. Seguiremos trabajando para ofrecer el mejor servicio posible.





# BAILARA

## LEHIAKORRA ETA ERAKARGARRIA

**Identitatea, lehiakortasuna eta erakargarritasuna sustatzea dira Urola Erdiko plan estrategikoaren erronka nagusiak, egungo bizi-kalitateari eutsi ahal izateko, jarduera ekonomikoa suspertuta mantentzeko, eta bertako talentua galdu gabe, kanpokoa erakartzeko. Horretarako, bailarako herriak eskutik joan behar dugu.**

# COMARCA

## COMPETITIVA, ATRACTIVA

Fomentar nuestra identidad como comarca, ganar en competitividad, y atraer inversión y talento -evitando a su vez su fuga- son los principales retos del plan estratégico de Urola Erdia para mantener nuestra calidad de vida y la actividad económica. Para ello, los municipios de Urola Erdia tenemos que unirnos e ir de la mano.

# HERRIA



## KALEAK GARBI ETA APAIN

## CALLES LIMPIAS Y CUIDADAS

**Ahalegin berezia egingo dugu kale eta auzoak erakargarri egiteko. Espazio publikoak txukuntzea, ondarea balioan jartzea, loretegiak zaintzea, zebra-bideak eta bankuak margotzea, espaloiak eta bideak ondo mantentzea eta kaleen garbiketari lotutako lanei lehentasun osoa emango diegu.**

Realizaremos un esfuerzo añadido para hacer calles y barrios más atractivos. Daremos absoluta prioridad al mantenimiento de los espacios públicos, a la puesta en valor del patrimonio, a la jardinería, a los trabajos de pintado de los pasos de cebra y de bancos, así como al estado de las aceras y carreteras.



## AZOKA PLAZAREN BERRITZEA

## REFORMA DEL MERCADO

**Azoka itxuraberritzeko eta bertako produktuen kontsumoa indartzeko hobekuntzak egingo ditugu Azoka Plazan. Inbertsioaren zati bat Udalak Europatik lortutako dirulaguntzarekin finantzatuko da. Teilatua, argiak eta ateak berrituko dira, eta irisgarritasuna hobetu.**

Realizaremos mejoras en la Plaza del Mercado para fomentar el consumo de productos locales. Parte de la inversión será financiada por la subvención europea que le ha sido otorgada al Ayuntamiento. Se reformarán el tejado, la iluminación y las puertas, así como la accesibilidad.



## ARAUDI ALDAKETA

## CAMBIO DE NORMATIVA

**Alde Zaharreko eraikinetako eta baserrietako jarduketak erregulatzen dituzten araudiak aldatuko ditugu, gaur egun indarrean dauden arauak murriztaileegiak direlako. Araudia egokitu eta malgutuko dugu, eta laguntzak sustatu, etxeetan egin nahi diren esku-hartze eta obrak errazteko.**

Modificaremos las normativas que regulan las actuaciones de los edificios del Casco Viejo y de los caseríos, porque las normas en vigor son excesivamente restrictivas. Queremos flexibilizarlas y promover ayudas para poder dar mayores facilidades para obras

# MUNICIPIO



eaj pnv

*Aurrera, batera!* **Azkoitia** *Mira al Futuro*

# AZKOITIA BERDEA, JASANGARRIA
## AZKOITIA VERDE, SOSTENIBLE



**<u>Trantsizio energetikoa.</u> Energia berriztagarrien aldeko apustua egingo dugu, plaka fotovoltaikoek eta komunitate energetikoek eskaintzen dizkiguten aukerak aztertuz. Zaintzak erronka handien aurrean jartzen gaitu bai gizartea, bai erakundeak, eta horiei gogotsu eta arduraz helduko diegu.**

<u>Transición energética.</u> Apostaremos por las energías renovables analizando las opciones que nos brindan las placas fotovoltaicas y las comunidades energéticas. La protección del medioambiente nos coloca delante de grandes retos tanto a la sociedad como a las instituciones. Los abordaremos con responsabilidad.



### UGARTEIGARANGO BERDEGUNEA
### ZONA VERDE DE UGARTEIGARAN

**Ugarteigarango igerilekuen ondoko baserria hutsik geratu ostean, Udalaren jabetzara pasa da. Ondorioz, eremu horrek aisialdirako eskaintzen dituen aukerak eta bideragarritasuna aztertuko dira.**

Tras quedar desocupada, el caserío ubicado junto a las piscinas descubiertas de Ugarteigaran ha pasado a ser propiedad del Ayuntamiento. Analizaremos las opciones que presenta y su viabilidad.



### JAUSOROKO ZUHAIZTIA
### ARBOLADO DE JAUSORO

**Jausoro auzoan, bidegorriaren ondoan dagoen zuhaiztia txukundu eta biziberrituko dugu, herritarrek arnasgune berde bat izan dezaten herrigunetik gertu. Eremu berdeak sustatuko ditugu.**

Acondicionaremos el arbolado de Jausoro, ubicado junto al bidegorri, para que las vecinas y vecinos tengan una zona para relajarse cerca del núcleo urbano. Fomentaremos las zonas verdes.



### PASEALEKUAK
### LUGARES DE PASEO

**Ogi-lantegia eraitsita, San Martingo eremuak pasealekua edo natur parkea eraikitzeko eskaintzen dituen aukerak aztertuko ditugu. Halaber, Oteiza Frontoiak eta Altzibar auzoa espaloi bidez lotzea aztertuko dugu.**

Tras el derribo del obrador de pan, exploraremos qué opciones hay para crear una zona de paseo o parque en San Martín. Además, analizaremos la unión de los Frontones Oteiza y Altzibar mediante una acera.



### BERTAKOA ETA BERTAN
### PRODUCTO LOCAL Y COMERCIO VIVO

**<u>Gure baserriak, gure dendak</u>. Inguruan baserriak, azokan baserriko produktuak, eta kaleetan dendak nahi baldin baditugu, gure kontsumo ohiturak aldatu behar ditugu. Baserri mundua eta merkataritzarena dira ahulen dauden sektoreak eta herritarren eta erakundeen laguntzarik gabe, zaila dute bizirautea. Kontzientzia kolektiboan eragingo dugu eta laguntzak sustatu. Onena, bertakoa, bertan.**

<u>Nuestros caseríos, nuestros comercios</u>. Estamos obligados a cambiar nuestros hábitos de consumo si queremos un entorno con caseríos, producto local en el mercado y comercio en las calles. El primer sector y el comercio son los de mayor vulnerabilidad y riesgo, con un difícil porvenir sin la ayuda de consumidores e instituciones. Apelaremos a la conciencia colectiva y promoveremos ayudas. Lo mejor, lo más cercano.



### BASERRI BIDEAK
### CAMINOS RURALES

**Oinarrizko azpiegitura egokirik gabe, alferrikakoa da ekoizle eta baserritarrei lanean jarraitzeko eskatzea. Azken urteotan inbertsio handiak egin dira baserri bideak konpontzeko, eta bide horretatik jarraituko dugu, duen garrantziaz jakitun garelako. Baserritarren eskari nagusia da bideen mantenuari eustea, eta erantzuten ahaleginduko gara.**

Sin la dotación de infraestructuras básicas, no es de recibo pedir a los y a las baserritarras que sigan produciendo. Es su principal demanda y vamos a seguir teniéndolo muy en cuenta. Durante estos últimos años, la inversión en la mejora de caminos rurales ha sido significativa.



# LANDA EREMUA BIZIRIK
## POR UN MEDIO RURAL VIVO

**Landa eremuak ezin du bigarren mailako bizitokia izan. Banda zabala edo zuntz optikoa hedatzen ari dira lurralde osoko landa eremuetan, Azkoitikoak barne. Baserrian bizitzeak ez du zerbitzuetan murrizketarik ekarri behar. Baserrietako seinaleztapena eta zabor bilketa puntuak hobetzen ere saiatuko gara. Urkome elkartea bidelagun dugu.**

La zona rural no puede ser un lugar de residencia de segundo nivel. Se está extendiendo la banda ancha o fibra óptica en las zonas rurales de todo el territorio, también en Azkoitia. Vivir en el caserío no puede suponer una merma de los servicios. Intentaremos mejorar la señalítica y los puntos de recogida de los residuos.
Contamos con la ayuda de Urkome.


eaj pnv
*Aurrera, batera!* **Azkoitia** *Mira al Futuro*

# BETIKO PLAZABERRI, BERRITUTA
## REFORMA DE PLAZABERRI

**Gure asmoa da Plazaberri -bere nortasunari eutsiz- eraberritzeko proiektua egitea hurrengo legealdian. Horrek oinezkotzea dakar. “15 minutuko hiria” eta antzerako kontzeptuak entzuten dira. Azkoitian oinez herria zeharkatzeko 11 minutu nahikoak dira. Oreka behar dugu. Kotxeak eta aparkalekuak behar ditugu, baita oinez lasai ibiltzeko kaleak ere. Halaber, Goiko Kale eta San Martin kaleak txukuntzea dugu helburu, Ipintzan espaloia eraikitzea, eta Santa Klarakoa berritzea aztertuko dugu.**

Planteamos hacer el proyecto de reforma de Plazaberri -manteniendo su identidad- durante la próxima legislatura. Conllevaría peatonalizar la zona. Cuando están en boga conceptos como “la ciudad de 15 minutos”, hay que recordar que cruzar Azkoitia lleva 11 minutos. Hay que buscar un equilibrio. Necesitamos coches y aparcamientos, y también zonas de paseo libres de vehículos. Asimismo, mejoraremos Goiko kale y San Martin Kalea, y estudiaremos construir una acera en Ipintza y reformar la de Santa Clara.



# APARKALEKU BERRIAK, NON?
## NUEVOS APARCAMIENTOS, ¿DÓNDE?

**15 minutuko hiriaren kontzeptuarekin alderatuta, kontraesankorra den arren, herritarrek autoa erabiltzen dute, eta familia gehienetan kotxe bat baino gehiago daude. Azkoitian arazo nagusia aparkaleku eza da. Aparkalekuen inguruko azterlana egingo dugu. Aparkalekuentzat egokitu daitezke Oteiza frontoien ondoko eremua; Joseba jatetxearen aurrekaldea, lurrazpiko aparkalekua eraikita; Floreaga eta San Martin auzoko lursailak, e.a.**

Aunque choque con el concepto de “ciudad en 15 minutos”, la ciudadanía hace un uso masivo del coche y en la mayoría de familias hay más de un vehículo. El principal problema hoy en día en Azkoitia es la falta de aparcamiento. Realizaremos un estudio para ver dónde crear nuevos aparcamientos. Posibles propuestas: Junto a los Frontones Oteiza, creando una planta subterránea bajo el aparcamiento anexo al Restaurante Joseba, en terrenos de Floreaga y San Martín...





# INTSAUSTIKO URBANIZAZIOA
## URBANIZACIÓN DE INTSAUSTI

**Bizitegia. EAJren udal gobernua lehendik ere lanean ari da Intsaustiko eremua bizitegi-gune lehenbailehen bihurtzeko. Lursailen jabetza partekatua denez, -publikoa eta pribatua- soluzioa konplexua da. Hala ere, aurrera egingo dugu Intsaustiko eremuan etxebizitzak ikusi arte. Horri lotuta, Toki Alai etxea zegoen eremua ere berreskuratzen saiatuko gara.**

Desarrollo residencial. El Gobierno Municipal de PNV lleva tiempo trabajando para impulsar el desarrollo urbanístico del área de Intsausti. Entidades públicas y privadas comparten la propiedad de la zona, lo que dificulta las negociaciones. Continuaremos trabajando para desbloquear la situación. También intentaremos regenerar la zona de Toki Alai.



# TXALONERREKA, BERRITUTA
## EL NUEVO TXALONERREKA

**Txalonerreka auzo berria izango da. EAJren udal gobernuak lursailak saldu zizkion Jaurlaritzari alokairuko etxebizitza sozialak eraikitzeko eta martxan daude. Halaber, Txalonerreka eta Altamira lotuko dituen errepidea eraikitzeko diru-partida bideratuta du Udalak.**

Txalonerreka será otro Txalonerreka. El Gobierno Municipal de PNV vendió parcelas al Gobierno Vasco para edificar vivienda social y está en marcha. Además, el Ayuntamiento ha fijado ya una partida presupuestaria para el vial que unirá el barrio con Altamira.



# ETXE HUTSEN AZTERKETA
## MAPA DE VIVIENDAS VACÍAS

**Ahalik eta etxebizitza politika eraginkorrena garatzeko, etxe hutsen azterketa egingo dugu. Behin beharrak identifikatuta, diagnostikoari arduraz erantzutea izango da gure egitekoa. Babestutako etxebizitzei dagokienez, alokairuaren aldeko hautua lehenetsiko dugu.**

Haremos un mapeo de viviendas vacías para llevar a cabo una eficaz política de vivienda. Una vez identificadas las necesidades, nuestra labor será actuar con responsabilidad de cara al diagnóstico. En cuanto a la vivienda protegida, priorizaremos el alquiler.


eaj pnv
Aurrera, batera! Azkoitia Mira al Futuro



## IZARRE JANDALO ETA INDUSTRIA
## IZARRE JANDALO E INDUSTRIA

**Inbertsio berrientzat, ateak zabalik. Aktibitate ekonomikoa erakartzeko pabilioiak badauden arren, lursail industrialik gabe geratu da Azkoitia. Soluzioari begira, Izarre Jandaloko lursailak birkalifikatzea proposatzen dugu. Bide horri helduko diogu, horrek lanpostu berriak sortzea dakarrelako etorkizunean.**

Puertas abiertas a nuevas inversiones. Azkoitia cuenta con pabellones para atraer nueva actividad económica, pero tiene agotado su suelo industrial. Como solución, proponemos recalificar Izarre Jandalo como industrial. Esa será nuestra opción porque supone garantizar nuevos puestos de empleo para el futuro.

## PERTSONA ZAURGARRIENEN BABESA
## PROTECCIÓN A LAS PERSONAS

**Adin eta profil guztietako herritar zaurgarrienak eta bazterkeria arriskuan daudenak babestea da erakunde publikoen ardura nagusia, inor atzean utzi gabe. Horretarako Gizarte Zerbitzuek ia 1,5 milioi euroko aurrekontua dute, %10,38ko igoerarekin. Herritarren ongizatea bermatzen jarraituko dugu.**

La primera responsabilidad de las entidades públicas es proteger a las personas en situación de vulnerabilidad y exclusión. No dejar a nadie atrás. Para ello, los Servicios Sociales cuentan este año con un presupuesto de 1,5 millones de euros, con una subida del 10,38%. Seguiremos priorizando el bienestar de las personas.





### FLOREAGAKO IRISGARRITASUNA
### ACCESIBILIDAD EN FLOREAGA

**Lehen bi faseak bideratuta, Floreagan irisgarritasuna hobetzeko, proiektua bere osotasunean gauzatzeko pausoak emango ditugu. Udalak bizilagunekin laugarren fasea aurreratzea adostu du eta horrela egingo dugu. Laugarren fasea lehenengo, eta hirugarrena, ondoren.**

Con las dos primeras fases encauzadas, continuaremos trabajando para ejecutar el proyecto de accesibilidad en su totalidad. El Ayuntamiento ha acordado con las vecinas y vecinos adelantar la cuarta fase y así lo haremos. La cuarta fase primero, y la tercera, después.



### SAN MARTINGO IRISGARRITASUNA
### ACCESIBILIDAD EN SAN MARTÍN

**Udalak San Martingo irisgarritasuna hobetzeko azterlana egina du, eta aurreratuta ditu lanak. Egunerok bizitzan auzoko bizilagunen mugikortasuna errazagoa egingo duen hiru mailatako igogailua jarriko dugu, Rikardo Otaño eta Beidazar kaleak konektatuz.**

El Ayuntamiento tiene hecho el estudio de alternativas para mejorar la accesibilidad en San Martín y tiene adelantado el proyecto. Instalaremos un ascensor de tres niveles para facilitar la movilidad de los vecinos, conectando las calles Rikardo Otaño y Beidazar.



### ZAINTZA EREDU BERRIRANTZ
### NUEVO MODELO DE CUIDADOS

**Etxean bezala. Udalak eta Aldundiak hitzartutako akordioari esker, zaintza eredu berria ezarriko da San Jose Egoitzan, Unitate Psikogeriatrikoa berritzearekin batera. 4,7 milioi euro inbertituko dira.**

Como en casa. En base al acuerdo entre Ayuntamiento y Diputación, la Residencia San José contará con un nuevo modelo de cuidados y se reformará la Unidad de Psicogeriatría. Se invertirán 4,7 millones.



### EGUNEKO ZENTROA, HERRIGUNEAN
### TRASLADO DEL CENTRO DE DÍA

**Eguneko Zentroa herrigunera lekualdatzeko lokalak erosita ditu Udalak Burdinoleta kalean, eta zerbitzua eman ahal izateko falta diren urratsak ematen joango gara, Foru Aldundiarekin batera.**

El Ayuntamiento ha comprado los locales en los que se reubicará el Centro de Día, en Burdinoleta kalea. Continuaremos con el proyecto hasta el traslado del servicio, junto con la Diputación Foral.



### APARTAMENTU TUTELATUEN TOKIALDATZEA
### NUEVA UBICACIÓN PARA LOS APARTAMENTOS

**EAJren Udal Gobernuak apartamentu tutelatuak herrigunera jaisteko konpromisoa hartu du, eta hurrengo legealdian lanean jarraituko dugu emandako hitza betetzeko, Eguneko Zentroarekin egin bezala.**

El Gobierno Municipal de PNV ha adquirido el compromiso de trasladar los apartamentos tutelados y ubicarlos en el centro del municipio. Trabajaremos para cumplir la palabra dada, al igual que con el Centro de Día.



eaj pnv

*Aurrera, batera!* **Azkoitia** Mira al Futuro

## EUSKARAREN ARNASGUNE
### NICHO VITAL DEL EUSKERA

**Azkoitiak euskararen arnasgune izaten jarraitu behar du. Gazteen artean erabilera oso altua da; haurren artean, ordea, zertxobait behera egin du. Hor eragingo dugu, jaitsiera joera bihurtu ez dadin.**

Azkoitia tiene que ser un nicho vital para el euskera. Su uso entre la juventud es muy alto, y entre las niñas y niños ha tenido una ligera bajada. Incideremos en ello para que no sea una tendencia.

## HITANOAREN INDARTZEA
### RECUPERANDO EL USO DEL HIKA

**Hitanoa indartzeko plangintzarekin aurrera jarraituko dugu. Hika eta bereziki, noka. Hitanoaren erabileran trebatzeko mugikorretarako aplikazioa garatzea da asmoa, beste hainbat ekintzen artean.**

Continuaremos con el plan para recuperar el uso del hika, y muy especialmente, el noka. Para ello, lanzaremos una aplicación para móviles para, mediante el juego, aprender a usarlo de forma correcta.



## MUNDUKOLOREAK, ETORRI BERRIENTZAT
### PARA PERSONAS RECIÉN LLEGADAS

**Kanpotik gure herrira etorri berriak diren ikasleei euskara ikasteko baliabideak ematen jarraituko dugu Mundukoloreak programaren bidez. Halaber, eskoletan bertsolaritza sustatzen segituko dugu.**

Seguiremos ofreciendo recursos para que las alumnas y alumnos recién llegados a Azkoitia aprendan el euskera. Tenemos Mundukoloreak, programa de clases de refuerzo. También impulsaremos el bertsolarismo.



## EUSKARA IKASTEA, DOAKOA
### APRENDER EUSKERA ES GRATUITO

**Azkoitian euskara ikastea doakoa da. Iaz Udalak erabaki zuen ikastaroen matrikularen kostuaren %100 ordaintzea, oraindik ez dakitenei edo ikasi nahi dutenei erraztasunak emateko. Aurrerantzean ere, ahalik eta aukera zabalenak ahalbidetzen saiatuko gara arrazoi ekonomikoengatik behintzat, inor euskara ikasi gabe gera ez dadin. Horretarako dirulaguntzak eta bestelako baliabideak bideratuko ditugu.**

En Azkoitia, aprender euskera es gratuito. El Ayuntamiento decidió el año pasado cubrir el 100% del coste de la matrícula, como incentivo para aquellas personas que todavía no han aprendido y no pueden manejarse en euskera. Continuaremos ofreciendo recursos para que nadie deje de aprender por un motivo económico. Seguiremos dando subvenciones y facilidades.




## ENPRESEI ETA SALTOKIEI DIRULAGUNTZAK
### AYUDAS A EMPRESAS Y COMERCIOS

**Azkoitiko Udalak dirulaguntzak ematen ditu enpresetan euskara planak garatzeko eta lan munduan euskararen erabilera indartzeko. Baita, saltokietan euskararen presentzia areagotzeko ere, hala nola, webgunea, karteldegia, material grafikoa, e.a. euskaratuz. Erronka da kalean eta gainerako esparru guztietan, euskararen erabilera handitzea. Ezagutza eta erabilera parekatzea.**

El Ayuntamiento otorga subvenciones para implantar planes de euskera en empresas y reforzar, así, su uso en el mundo laboral. También tiene una línea de ayudas para los establecimientos comerciales para incrementar la presencia del euskera en sus sitios web, cartelería, material gráfico, etc. El reto es que cada vez se escuche más euskera en todos los ámbitos.



## BERDINTASUNA, INKLUSIOA
### IGUALDAD, INCLUSIÓN

**Gizarte justuagoa eraikitzen joan behar dugu. Berdintasunaren eta inklusioaren gaineko politiketan ez dago ezbairik. Arlo guztietan txertatuta egon behar dute. Zailtasun handienak dituzten kolektiboen alde egingo dugu lan, sexu aniztasuna eta genero identitatea defendatuz, aniztasun funtzionala dutenen eskubideen alde eginez, adineko pertsonak beti kontuan hartuz, eta etorkinen integrazioa sustatuz.**

Tenemos que ir hacia una sociedad cada vez más justa. Las políticas de igualdad e inclusión han de ser firmes y estar integradas en todos los ámbitos. Trabajaremos por los colectivos que mayores dificultades tienen, defendiendo la diversidad de sexo y género, la identidad, protegiendo los derechos de personas con diversidad funcional, teniendo siempre presente a las personas mayores y fomentando la integración de inmigrantes.



## PREBENTZIOA, ESKOLETAN
### PREVENCIÓN EN LA ESCUELA

**Udalak, hainbat eragilek eta eskolek osatzen duten Hezkidetza Foroak sustatuta, ikastetxeetan prebentzioa lantzen da, bereziki, pertsonen arteko harreman osasungarriak eta berdintasunezkoak lantzeko, eta nerabeak drogen kontsumoak dakartzan kalteen inguruan kontzientziatzeko. Datuek erakusten dute prebentzioa geroz eta beharrezkoagoa dela.**

El Ayuntamiento, agentes, y centros escolares integran el Foro de Coeducación para trabajar la prevención en la escuela, muy especialmente, aspectos como las relaciones sanas e igualitarias, o los asociados a los riesgos que conlleva el consumo de sustancias tóxicas. Los datos indican que la prevención es más necesaria que nunca.



## HAUR, NERABE ETA GAZTEAK
### INFANCIA Y JUVENTUD

**Adin guztietan da bizimodua konplexua. Haur, nerabe eta gaztetxoek arreta behar dute. Horregatik, Babes eta Tratu Onen plana garatuko dugu. Gazteria zerbitzutik lan esanguratsua egiten segituko da, aisialdiaz gozatzeko eskaintza izateaz gain, heziketa osasungarria eta balioetan oinarritua jaso dezaten. Horri lotuta, Guraso Eskolekin jarraituko dugu.**

La vida es compleja a cualquier edad. Niñas, niños, adolescentes y jóvenes requieren atención. Para ello, desarrollaremos un plan de Buen Trato. El Servicio de Juventud hace una muy buena labor para que, además de ocio, reciban una educación sana basada en valores. Continuaremos con todo ello, al igual que con la Escuela de Madres y Padres.



## BEHAR BERRIAK HEZKUNTZAN
### LAS NUEVAS NECESIDADES

**Esparru guztietan eman dira eraldaketa handiak, baita hezkuntzan ere. Egungo beharrek eta ikasketa metodologiek espazio fisikoak aldatzea eskatzen dute. Jolastokiak beste era batekoak izango dira etorkizunean. Elkarrekintza, sormena, ekimenerako ahalmena, eta gainerako gaitasunak garatzeko egokitutako espazioak izango dira. Aurrerabide horretan, ikastetxeek bidelagun izango gaituzte.**

Se han dado grandes transformaciones en todos los ámbitos, también en el educativo. Los nuevos métodos de aprendizaje requieren una modificación de los espacios físicos. Los patios del futuro serán muy distintos. Serán espacios diseñados para ejercitar la interacción, la creatividad, la capacidad de emprendizaje, etc. En ese camino, estaremos para ayudar.


*Aurrera, batera!* **Azkoitia** Mira al Futuro

# 700. URTEURRENAREN ATARIAN
## A LAS PUERTAS DEL 700 ANIVERSARIO

AZKOITIA

**Azkoitiko herriaren sorreraren herri-gutuna egin zela 700 urte beteko dira 2024an. Udalak hainbat ekintza garatu ditu jada, urteurrenaren harira. Testuinguru horretan gauzatu da Herrilab+700 parte-hartze proiektua, esaterako. Urtemugaz baliatuko gara gure ondarea eta historia ezagutzera emateko, eta turismoa indartzeko.**

En 2024 conmemoraremos el 700 aniversario de nuestra Carta Puebla. El Ayuntamiento ha llevado ya a cabo iniciativas con motivo de la efeméride, entre otras, el proyecto participativo Herrilab+700. Aprovecharemos la ocasión para dar a conocer y poner en valor nuestro patrimonio e historia, y atraer el turismo.



# GURE KULTURA, GURE IDENTITATEA
## NUESTRA CULTURA, NUESTRA IDENTIDAD

**Kultura agendatik haratago doa. Herri gisa ditugun balioek, tradizioek, sinesmenek, ohiturek... gure identitatea osatzen dute. Garena. Kultura eta identitatea eskutik doaz, eta babestea izango da erronka. Garai berriei heltzea, garenetik, garenari uko egin gabe. Eta, noski, kultur eskaintza zabalarekin.**

La cultura es mucho más que programar una agenda de actividades. Valores, tradiciones, creencias y costumbres conforman nuestra identidad. Es lo que somos. La cultura y la identidad van de la mano, y hay que protegerlas. Tenemos que afrontar nuevos tiempos sin negar lo que somos. Y, cómo no, con una amplia oferta cultural.



### KIROLA, OSASUNA, BIZITZA
#### DEPORTE, SALUD, VIDA

**Kirola indartsu dago herrian eta asko dira praktikatzen diren modalitateak. Baliabideak eta dirulaguntzak ematen, kirol-ekipamenduak egoki mantentzen, eta aukera berriak sortzen saiatuko gara.**

El deporte vive una buena época y se practican muchísimas modalidades. Continuaremos dando ayudas y manteniendo correctamente los equipamientos, e intentaremos crear nuevas oportunidades.



### PERTSONA HELDUENTZAT AUKERAK
#### PARA LAS PERSONAS MAYORES

**Jarduera fisikoak eragin nabarmena du ongizatean eta osasun komunitarioan, kirolak harreman sozialen ateak ere zabaltzen dituelako. Pasira eta Kirol Orientazio Zerbitzua dira horren adibide. Eutsiko diegu.**

La actividad física beneficia el bienestar y la salud comunitaria, entre otras razones, porque tambien incide en las relaciones sociales. Pasira y el Servicio de Orientación son ejemplo de ello. Los fomentaremos.



### KIROL EGOKITUAN URRATSAK
#### AVANCES EN EL DEPORTE ADAPTADO

**Kirola eskubidea den heinean, kirol egokituan aurrerapausoak ematea dagokigu. Eskola Kirol Egokitua martxan da, eta ahal den eremu guztietara zabalduko dugu. Kiroletan emakumeen presentzia ere sustatuko dugu.**

El deporte es un derecho de las personas. Por ello, tenemos que avanzar en el deporte adaptado, como ya se ha hecho con el deporte escolar adaptado. También fomentaremos la participación de las mujeres en el deporte.



### IGERILEKUEN HANDITZEA
#### AMPLIACIÓN DE LAS PISCINAS

**Udalak igerilekuen handitzearen exekuxio proiektua egina du; eguneratu beharra dago, eta bideragarritasun ekonomikoa lantzea falta da. Lan hori egiten ahaleginduko gara, jarduketak inbertsio altua eskatzen du-eta.**

El Ayuntamiento tiene hecho el proyecto de ejecución para la ampliación de las piscinas que hay que actualizar, y tiene pendiente resolver su financiación. Es una altísima inversión, pero trabajaremos para poder encauzarla.



### SAN JUANGO FUTBOL ZELAIA
#### CAMPO DE FÚTBOL DE SAN JUAN

**San Juango futbol zelaia berrituko dugu. Lan horietarako, Udalak dirulaguntza eskatuko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta gainerakoa Udalak finantzatuko du.**

Renovaremos el campo de fútbol de San Juan. Para ello, el Ayuntamiento solicitará una subvención a la Diputación Foral, y cubrirá el resto con fondos propios.



### SKATE PARKEA, TXERLOIAN
#### UN SKATE PARK EN TXERLOIA

**Atzeratutako proiektua da, baina aurrera aterako dena. EAJren planteamendua da Txerloian eraikitzea skate park-a, Txiki Golf ondoko lurretan, kirol eremu berean kirol ezberdinak bateratuz.**

Es un proyecto retrasado, pero que saldrá adelante. Proponemos crear un skate park en Txerloia, junto a Txiki Golf creando una zona deportiva en el área concentrando varias modalidades deportivas.


eaj pnv
Aurrera, batera! **Azkoitia** Mira al Futuro

# BAILARA



## UROLA ERDIKO BAILARA, DENOK BATERA
### UROLA ERDIA, JUNTOS POR LA COMARCA

**Azkoitiko herriaren garapena Urola bailararen barruan kokatu behar da. Bailara osatzen dugun herriok bat egin behar dugu eta indarrak batu,bere izaera eta egitura landuz, Iraurgi Berritzen eta Mankomunitatea bidelagun ditugula. Bailararen onurak, herrion onurak.**

El desarrollo de Azkoitia hay que entenderlo en el contexto geográfico de la comarca de Urola Erdia. Los municipios que integramos la comarca tenemos que unir fuerzas e ir de la mano para trabajar la estructura comarcal y su identidad, junto con Iraurgi Berritzen y la Mancomunidad.



## GARRAIO PUBLIKOA HAINBAT HIRITARA
### SERVICIO DE TRANSPORTE PÚBLICO

**Arrasatetik, Gasteiztik edo Bilbotik joan-etorria egiteko garraio publikoa izatea aspalditik datorren eskaera da, eta oraindik ezin izan zaio irtenbiderik eman. Bailara mailan landuko dugu gaia.**

Establecer un servicio de transporte público para desplazarse a Arrasate, Gasteiz o Bilbo es una demanda que viene de antes y que no se le ha podido dar respuesta. Lo trabajaremos a nivel comarcal.



## BAILARAKO ERREPIDE SAREA
### RED DE CARRETERAS COMARCAL

**Herri kanpoko errepideen eskumena Aldundiarena den arren, Urola Erdiko bide sarearen hobekuntzei lotutako aferak bailara mailan landu beharrekoak dira. Gaitasun handiko bideetako sarbideak sustatzen jarraituko dugu.**

Las carreteras no urbanas son competencia de la Diputación. Aún siendo así, surgen cuestiones que son necesarias trabajarlas de forma conjunta. Seguiremos impulsando los accesos a las vías de altas capacidades.



## FORMAZIOA, LEHIAKORTASUNA
### FORMACIÓN, COMPETITIVIDAD

**Izarraitz Lanbide Heziketa eta Hizkuntza Eskola indartzen jarraituko dugu. Inguruko unibertsitateekin egon daitezkeen lankidetza aukerak landuko ditugu.**

Continuaremos reforzando Izarraitz Lanbide Heziketa y la Escuela de Idiomas. Trabajaremos las posibilidades de colaboración con las universidades del entorno.



# UDALA



## UDALA BARRUTIK, SENDO
### UN AYUNTAMIENTO SÓLIDO

**Udala herritarren zerbitzura dagoen erakunde publikoa da, herritarrek hurbilen dutena. la 70 pertsonek egiten dute lan udaletxean. Beste edozein enpresak dituen ezaugarri berberak ditu. Funtzionamendua eta zerbitzuak onak izateko, ezinbestekoa da udal barruko egitura ondo errotua egotea. Horrek gerentzia lana eskatzen du.**

El Ayuntamiento es un ente público que está al servicio de las personas, y que más cerca tienen. Trabajan en él, unas 70 personas. Eso hace que, en muchos aspectos, tenga unas características similares a qualquier otra empresa. Para que el funcionamiento y el servicio sean óptimos, se necesita una estructura interna sólida. Todo ello, requiere una labor de gerencia.



## AURREZTE PUBLIKOA
### AHORRO PÚBLICO

**Azkoitiko Udalaren egoera ekonomikoa ona da, baina tarte gutxi du inbertsioetarako. Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak gero eta gehiago dira eta martxan jartzen den zerbitzu, baliabide, edo programa berri bakoitzak gastua eragiten du. Ondorioz, gastu arruntetara bideratzen den aurrekontua gorantz doa urtez urte. Aurrezte publikoari erreparatuko diogu.**

La situación económica del Ayuntamiento es buena y tiene unas cuentas saneadas, pero tiene poco margen para la inversión. El número de servicios que ofrece se va incrementando, y cada proyecto, servicio, recurso o programa que se pone en marcha supone más gasto. En consecuencia, el gasto corriente es cada vez más alto. Pondremos el foco en el ahorro público.



## GOBERNANTZA PUBLIKOA
### GOBERNANZA PÚBLICA

**Gobernantzaren printzipio nagusiak geure eginda jarraituko dugu lanean. Gardentasuna, zuzentasuna, herritarren parte-hartzea eta kontu ematea. Elkarrizketan eta akordioan oinarrituko gara.**

Continuaremos aplicando los principios de la buena gobernanza como son la transparencia, la integridad, la participación ciudadana y la rendición de cuentas. Buscaremos el diálogo y el acuerdo.



## KOMITEAREKIN ELKARLANA
### COLABORACIÓN CON EL COMITÉ

**EAJren Udal Gobernua udaletxeko langileen komitearekin adostasunak bilatzen ahalegindu da beti, sortutako gaien aurrean. Hori da gure bidea, ordezkari politikoen eta langileen arteko akordioak lortzea.**

El Gobierno Local de PNV siempre se ha esforzado en llegar a acuerdos con el comité de trabajadores, ante las distintas cuestiones a abordar. Intentaremos buscar acuerdos entre la representación política y las personas empleadas.



## ETENGABEKO FORMAZIOA
### FORMACIÓN CONTINUA

**Udaleko langile eta teknikariek etengabeko formazioa jasotzen dute, bakoitzak bere arloan eta dagokion eremuan. Helburua da zerbitzu publiko eraginkorra, neutrala eta lagungarria ematea herritarrei.**

Todo el personal del Ayuntamiento recibe formación continua en cada ámbito. El objetivo es ofrecer un servicio público eficaz, neutral y que sea de ayuda a las vecinas y vecinos de Azkoitia.

# Aurrera, batera!

# Azkoitia

*Mira al futuro*






1 AZOKA PLAZA



2 ALDE ZAHARRA



3 UGARTEIGARAN



4 JAUSORO



5 SAN MARTIN



6 PLAZABERRI



7 GOIKOKALE-SAN MARTIN



8 IPINTZA



9 INTSAUSTI



10 TXALONERREKA



11 IZARRE JANDALO



12 FLOREAGA



13 SAN JOSE EGOITZA



14 EGUNEKO ZENTROA



15 TOKI ALAI



# Orain norabide argi batekin aurrera egiteko garaia da

## *Ahora es momento de avanzar con un rumbo claro*

**HARREMANETAN JARRI**
PONTE EN CONTACTO

@EajPnvAzkoitia

@eajpnvgipuzkoa

@eajpnvgipuzkoa

@eajpnvgipuzkoa

943 118 888

eajpnvazkoitia@gmail.com

eaj pnv

#AURRERABATERA